

Berreraikuntza kapitalista



JUAN MARI ARREGI

Hemen dira Espainiako Estatuko kapitalismoaren ordezkariak, baita Hego Euskal Herrikoak ere, gobernuari eta administrazio publikoari norabidea markatzeko, pandemiarekin lotuta gauden krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioaren aurrean. Galerak sozializatuta, orain ez dute etekin pribatizazioa galdu nahi.

Horretarako, *Espainiako enpresak etorkizunaren buru* izeneko goi-bilera egiten ari dira Madrilen, eta ekainaren 24an amaituko da. Enpresa-talde handietako 130 enpresaburuk eta exekutibok baino gehiagok hartuko dute parte. Goi bilera horretan parte hartzen duten Ibx-eko enpresen 50 soldata onenak batuta, 200 milioi euro baino gehiago irabazi zuten 2019an; hau da, exekutibo bakoitzak batez beste 5 milioi euro kobratu zuen, langile baten batez besteko gastua baino 89,5 aldiz gehiago. Horiek dira berreraikuntza kapitalistaren etorkizuna diseinatzeko ari direnak.

Hori bai, hain basatia izan ez dadin, berreraikuntza horretan "kapitalismo berriaren" tesia betetzen ari dira, bata-suna, adostasuna, elkarriketa soziala, parte-hartzea, abertzaletasuna eta enplegu egonkor zein kalitatezkoa ahotan darabilte. Hala ere, ez dute ahazten beren nortasun estruktural kapitalista. Horregatik, inbertsiorako pizgarriak eta zerga-pizgarriak eskatzen ari dira altxor publikotik. Hau da, baldintza horiek eskatzen ari dira lan-erreformari eustea, kaleratze jendetsuak merkatzea eta lan-mugikortasuna eta zergak jaitea, gobernuaren iragarpenen aurrean. Ez gehiago, ez gutxiago.

Enpresen goi-bilera kapitalista horrek Espainiako Estatu osoko ezkerreko talde sozial, politiko eta sindikalen berehalako erreakzioa eragin beharko luke, galerak berriro sozializatzea eta etekin pribatizatzen jarraitzea eragozteko. ●



BAIONA HIRI IREKIA

Auzapezgaiari ala alderdiari so egin?

▲ JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Baionan bizi den abertzale ezkertiarrek giroa tentsiodun sentitzen du bigarren itzuliaren bezperan. Baionaz kanpo denak "zer demontre pasatzen da Baionan?" galdera du mihi puntan. Etxeto eta Etxegaraien artean izan den hautua, ezkerre eta eskuinaren artean. Abertzale batzuek ezker-eskuin eskemari loturik, Etxegarai kanporatu eta ezkerre nahi dute boterean –BBE *Baiona Berde eta Elkarkidea* Etxetori juntatzeko aldekoen argudioa zen, batzarraren bozketan gutxiengoan kausaturikoa–. Etxegarai sostengatzen duten abertzaleek, eskema horretaz haratago joan eta auzapezgaien posturari so egiteko premia ikusten dute. Argi da auzapezgaiari so eginez, ezker-eskuin kartak nahasirik direla: ezkerreko Etxeto AHTaren alde da, eskuineko Etxegarai kontra; etorkinen alde aritu da Etxegarai, prefetaren aurka egiteko ausardia politikarekin gainera –Pausa harrera gunearen sorrera izan da ikusgarriena, baina aitzin goraiatu ez zituen neurri asko hartu zituen, etorkinek zein laguntzaileek estimaturikoak–. Bake prozesuaren aurka da Etxeto, asko egin du Etxegarai, presoan auzia konpontzeko bilerak Justizia ministerioan errepikatuz. Euskara politikari dagokionez argi da Etxegarai ez duela nahikoa egin eta hitzemandakoa ez duela gauzatu. Baina Etxeto ez doa hobeto. Ondoko osagaia ere hor da: 2014an Baionako eskuinaren Grenet dinastia Etxegaraien aurka aritu zen kanpainen eta Etxeto agertu zaigu duela hiru aste, merkatu egunez terrazan Grenetekin kafea edaten, guztiok ikusteko gisan. Aurten ere, eskuin historikoaren sostengua nora doan zalantzan jartzeraino. Auzapezak inguruan taldea duela diote Etxetoren aldekoek, bai –baina– auzapezak asko egin duela diote Etxegaraien aldekoek. Giroa are elektrikoagoa da, jakina delako ekainaren 28ko emaitzak Baionatik haratago ukanen dituela ondorioak, Euskal Hirigune Elkargoan zein presoan auziari dagokionez Paris mugiarazi nahian dabilen ordezkartzan.

26 bozkek banatu zituzten Etxeto eta Etxegarai 2014an eta aurten ere oso tinko da afera. Abertzaleen botoak ukanen du eragina: ezker-eskuin eskemari begira diren eta auzapezgaiari so diren arteko aldeak ukanen du pisu handia. ●